

7.FUNTSEZKO BALIABIDEAK

IkasBideo proiektua aurrera eramateko baliabide intelektualak beharrezkoak izan ditugu, esate baterako, informatikoak eta ikasgai ezberdinen inguruko iturriak. Finantza-baliabideei dagokionez, bankuari mailegu bat eskatu genion, hasiera batean enpresa sortu ahal izateko. Ondoren, lortzen joan garen diru sarrerekin enpresa aurrera eramateko aukera izan dugu.



Horretaz gain, bestelako elementu batzuk ditugu, horien artean ordenagailua, telefonoa, bideoak egiteko aplikazio informatikoak, webgunea bat eta sare sozialak daude. Hauek gure bezeroei kalitatezko zerbitzuak ematea ahalbidetzen digu, eta beraiekin harremanetan jartzea errazten digute. Horretaz gain, eskaintza berriak bertan ipintzen ditugu, gure bezeroek horien berri jakiteko.

